




LIBURUAK

'Monster, gure maisua'

Mikelen gelara maisu berria etorri da. Itxura beldurgarria du, eta Mikel beldurtu egin da. Egiten ez dakien ariketa agindu dio. Beldurtuta istorio beldurgarriak imajinatu ditu.

Antton Dueso

Argitaletxea. ■ Elkar




'Arreba txiki bat dut'

Handiak eta txikiak, berriak eta lotsatiak, gizenak eta argalak... Pertsona guztiak ez dira berdinak. Eta zer? Liburu hau ere desberdina da, eta horrexegatik da polita. Baietz gustatu!

J. M. Olaizola

Argitaletxea. ■ Elkar




BIDEO JOKOAK

'Gohtic'

Myrtana lurraldean, herritarak gaindiezina den muga baten barruan bakartu ditu gaizkileen armada batek. Zure esku dago lurraldea berriro batu, eta erasotzaileen eskuetatik askatzea.

PC

Argitaletxea. ■ Friendware




'Penny Racers PS2'

Auto lasterketa zirraragarrienetan parte hartzeko jokoa duzu. 26 zirkuitu dituzu aukeran. Lasterketak irabazi ahala, hainbat gidabaimen lortu, eta ibilbide berrietan ibiltzeko aukera izango duzu.

PlayStation

Argitaletxea. ■ Virgin



Xingola 3

irudietan

Jagoba Manterola / Argazki Press



Jaiak

Entzierroa menditik behera

Faltzesko entzierroa berezia da oso, ohiko entzierroetan ez bezala, mendian behera egiten den lasterketa baita. Bigantxak menditik jaisten dira abiada bizian, eta korrikalariak mendiko harritzar eta zuhaitzen artetik ihes egin behar izaten dute, bigantxen adarkadarik jaso nahi ez badute, behintzat. Bidea estua da, eta babeste-ko leku handirik ere ez dago; amildegian behera botatzea aukera bat izan liteke, baina hobe ez proba egitea.

Natura Freskatu ederra!

Tokion (Japonian) eguraldi ona egiten duela igartzen da. 35 gradutik gorako tenperaturarekin bainu eder bat hartzea bezalakorik ez dagoela eta, igerilekua jendez gainezka dago. Hainbeste jenderekin, ordea, uretan ere ez ote du beroa egingo?



Toru Yamanaka / EPA